

DIRU SARRERAK

Gure empresa NEOS TECHNOLOGY, aurrera eran ahal izateko, hainbat diru sarreraz baliatuko gara etekinak lortzen hasi baino lehen. Gure gailua guztiz egina 29,99€ balioko ditu. Hura, hainbat piezetan banatzen da: erresistentzia kartutxoa (5€/u) balioko du, karkasa (1€/u) eta azkenik bateria (5€/u). Hau da; X-changer bat saltzen dugun bakoitzean 18€ irabazi egingo ditugu guztira, kontuan izanda ere produktuaren garraioa, 1 batekoa izango dena kontuan izanda produktuaren joan-etorria..

Bestalde, hasierako inbertsioa 31.000€. Taldekide bakoitzak, hasteko 600 euro jarriko ditu; hau da, guztira 3000€. Falta zaigun beste guztia izango da eskatuko dioguna bankuari: Hasierako inbertsioa - guk jarritako dirua → 31. 000€
→ 34.000€ - 3000€

Proiektu honen errentagarritasuna aztertzeko lokagunea kalkulatu dugu, alegia zenbat unitate saldu behar diren kostu finkoak estaltzeko. Kontuan izanda hilabetean 720 unitate saldu behar direla irabaziak lortzen hasteko, pentsatzen dugu zaila izan daitekeela hasiera batean kostu guztiei aurre egitea. Hala ere, hilabete oso bat izango dugu unitate guzti horiek saltzeko. Estimazio bat egin dugu gure kanpainen eragina buruan izanda, eta betiere 400 unitate on-line dendan eta 320 unitate fisikoki saltzen baditugu, ez da arazorik egongo. Azkenean, horrek eguneko 23 unitate saltzea suposatzen du, eta gure gaitasunak kontuan izanda, guztiz prest ikusten dugu geure burua helburu hura lortzeko. Hortik aurrera saldutako produktuak irabaziak izango lirateke.

Bestalde, gure webgunean eskeintzen dugun harpidetzak etekinak eman ditzakegu ere. Lehen hilabetean, 20 pertsonetako harpidetza lortuz gero, 99.8 euro irabaziko genituzke, eta aurrerago, pertsona gehiago suskripzioa hartzea espero dugu.

Hasierako inbertsioei aurre egiteko bazkideen ekarpena 3000 eurotakoa izango da, Erantzukizun Mugatuko enpresa baten kapital minimoa osatuko delarik. Bestalde, gainerako zenbatekoa mailegu baten bidez estaliko da, 31.000 eurokoa izango dena. Maileguaren amortizazio kuota dagokionean 10 urtetan finantziatzea espero dugu, 350 euroko amortizazio kuota izango duena.